



**Hezkuntza sailburuaren agindua, EUNEIZ Unibertsitate pribatua aitortzeko lege-proiektua aldez aurretik onartzen duena.**

Abenduaren 22ko 8/2003 legeak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurarenak, II. Kapituluari xedatzen duenez, sailburuaren aginduz emango zaio izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurari hasiera.

Lege horren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, "izaera orokorreko xedapenei buruzko proiektuak erredaktatu ondoren, hasiera-agindua eman duen organoak eman beharko die aldez aurretik oniritzia, behar diren negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-tramiteak gauzatu aurretik".

EUNEIZ Unibertsitate pribatua aitortzeko lege-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agindua eman zuen, 2020ko otsailaren 6an, Hezkuntza sailburuak.

Proiektuaren testua erredaktatu ondoren, aipatutako aginduan ezarritako helburuaren arabera, onartzen da, entzunaldi- eta kontsulta-tramiteak gauzatu aurretik.

Aurretik azaldutakoarengatik,

**EBAZTEN DUT:**

Lehena.- EUNEIZ Unibertsitate pribatua aitortzeko lege-proiektuaren testua aldez aurretik onartzea.

Bigarrena.- Aipatutako xedapena egiteko prozedurak bukatzeko behar diren instrukzio-egintzek jarraitzeko agindua ematea.

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte Toledo



Nahi izanez gero, J0D0Z-T26PP-FPB2 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T26PP-FPB2 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>